

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Aurrez existitzen ez ziren beharrak asetzea dugu helburu nagusia.

Guk gaur egungo sisteman nabaria den estres eta ansietatea gutxitzeko behar bat ikusi dugu. Ez dugu produkturik aurkitu arazo hau konponduko dutenik, beraz, gure zerbitzu hau sortzea beharrezkoa iruditu zaigu. Gainera, gaur egun mehatxu dugun berotze globala eta naturarekin dauzkagun arazo guztien inguruan kontzientzia falta handia dagoela iruditu zaigu, beraz, gure zerbitzu jasagarri honen beste helburu bat kontzientzia hori sustatzea izango da.

Gainera, gaur egungo Covid-19 ak eragindako egoeraren soluzio ona izan daitekeela iruditzen zaigu, izan ere, hainbeste denbora etxean pasa beharrak jende askori ezinegona sortu dio eta nahiz eta egoera hobetuz doala dirudien ez dakigu berriro atzera bueltatuko garen ala ez. Beraz, etxean egon behar bagara, erlaxatzeko produktu hauek ongi etorriko liratekeela iruditzen zaigu.



Laburbilduz, bazkide bakoitzari hilabetero galdetegi bat egingo zaio produktu erabat pertsonalizatua bihurtzeko eta galdetegi horretatik abiatuta, kutxa bat prestatuko diogu bezero bakoitzari beste enpresa batzuek emandako produktuekin. Gainera produktu eta bizimodu etiko eta beganei buruzko aldizkari bat bidaliko diegu gizartean kontzientzia pintu dadin. Ondorioz, aukera paregabea izango da bezeroentzat munduari laguntzeko, izan ere, erabiltzen ditugun produktuak jasagarriak eta etikoak izango dira, beste hitz batzuetan esanda, espezie baten eta inguruko baliabideen arteko oreka lortzen duten produktuak izango lirateke.